Deialdi bateratuetan parte hartzeko argibideak

Azterketa egin ondoren

Emaitzak

IVAPek azterketaren emaitzak entitate bakoitzari bidaliko dizkio idatzizko eta ahozko probak egin eta hamar egunera, beranduen.

Erreklamazio egiteko epea

Hautaketa-prozesuko epaimahaiak euskarako azterketaren emaitzak argitaratzen dituenean jakinaraziko die izangaiei erreklamazioak egiteko duten epea zein den.

Azterketariak, hala nahi izanez gero, ahozko azterketa entzuteko aukera izango du, betiere IVAPek jarritako egunean eta orduan.

Erreklamazioak kudeatu

Emaitzen kontra erreklamatu nahi duenak hautaketa-prozesuko epaimahaiari zuzenduko dio erreklamazioa.

Erreklamazio-epea bukatuta, epaimahaiak erreklamazio guztiak batu eta IVAPera bidaliko ditu.

IVAPek erreklamazioa aurkeztu dutenen azterketa berraztertuko du eta emaitzan aldaketarik egon den ala ez idatziz jakinaraziko dio hautaketa-prozesuko epaimahaiari 10 eguneko epean, honek interesdunari jakinarazi diezaion.

Ziurtagiriak

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duen izangaiak bere ziurtagiri digitala behar beste aldiz jaitsi ahal izango du Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikotik, “Nire karpeta” ataletik (www.euskadi.eus) edo IVAPeko Azternet aplikaziotik (www.ivap.euskadi.eus/azternet).

Aplikazioan sartu ahal izateko, hautagaia elektronikoki identifikatu behar da, NAN elektronikoaren bidez edo IZENPEren identifikazio digital baten bidez (BAKQ, adibidez).

IZENPEren ziurtagiriak aurrez aurre eskatu daitezke Zuzenean zerbitzuaren arretaguneetan, KZGuneetan edo Osakidetzaren Osasun Zentroetan.

Behin Azterneten sartuz gero, “Ziurtatzeak” eta “IVAPeko ziurtagiriak” gunetik ziurtagiri digitala deskargatu eta inprimatu dezake interesdunak.

Harremanetarako:

Aintzane Iturria
Telefonoa: 945 017629
ma-iturria@ivap.eus

#EUSKADIBERRIA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO